

Eranskinak**I. Eranskina: Gurasoei zuzendutako inkestaren galderak****ETIKA PROFESIONALA ETA DATUEN BABESA**

Kaixo! Ane Miren Sánchez Sánchez naiz, Haur Hezkuntzako Graduko laugarren mailako ikaslea UPV/EHUko Leioako fakultatean eta zuregana jotzen dut nire Gradu Amaierako Lana (GrAL) aurrera eraman ahal izateko. Inkesta honek gurasoek egokitzapenaldian izandako sentimenduak, bizipenak eta horrekiko iritzia jasotzea izango du helburutzat. Hori dela eta, inkesta hau duela gutxi egokitzapenaldian egon diren seme-alaben gurasoei edota tutoreei zuzenduta dago.

Inkesta erantzutea borondatezkoa da, baina nire ikerketarako oso baliagarria izango litzateke. Betiere, inkesta honen bidez jasotako datuak guztiz anonimoak izango dira eta konfidentzialtasun osoz tratatuko dira, era berean, soilik arestian aipatutako GrALa aurrera eramateko baliatuko dira. Horregatik, zintzotasun osoz erantzutea eskertuko nizuke.

Hortaz, galdetegia erantzutearekin ados bazaude klikatu mesedez beheko laukitxoan. Bestalde, galderarik izatekotan, nire unibertsitateko posta-elektronikoa (asanchez302@ikasle.ehu.eus) eskuragarri uzten dizuet zuen zalantzak argitzeko.

Eskerrik asko zure arretagatik.

DATU OROKORRAK:

1. Adina:
2. Generoa:
3. Zenbat seme-alaba dituzu:
4. Zenbat urte ditu egokitzapenaldian egon den seme-alabak:
5. Eskola _____ ikasten du:
 - a. Publikoan
 - b. Itunpekoan
 - c. Pribatuan
6. Nire seme-alaba eskolan hasi aurretik haurtzaindegian egon da.

INKESTA

Adierazi hurrengo baieztapenekin “erabat desados” (1) edo “erabat ados” (5) bazaude.

1. Eskola aurretik ezagutzen nuen.
2. Nire seme-alabaren irakaslearengan konfiantza daukat.
3. Nire ustez egokitzapen aldia garrantzitsua da haurrak eskolan ondo moldatzeko.
4. Egokitzapen aldian nahi nuen beste inplikazioa izateko aukera izan dut.
5. Pozik nago eskolak egokitzapena gauzatzeko jarraitu duen prozesuarekin eta jasotako informazioarekin.
6. Irakasleak egokitzapen aldiari duen behar beste garrantzia ematen dio eta aldi horretan zehar egindako jarduerak egokitzapenean laguntzen dutela deritzot.
7. Nire seme-alaba eskolan uzterakoan honako sentipenak izan ditut:
 - a. Tristura
 - b. Lasaitasuna
 - c. Poza
 - d. Haserrea
 - e. Beldurra
 - f. Besterik (deskribatu):
8. Saiatzen banaiz ere, eskolarekiko daukadan beldurra/ ezinegona nire seme-alabaren aurrean nahi gabe erakusten dut.
9. Nire seme-alabari eskolarekiko segurtasuna helarazten diot.
10. Nire seme-alaba eskolan hasterakoan honako sentipenak izan ditu:
 - a. Tristura
 - b. Lasaitasuna
 - c. Poza
 - d. Haserrea
 - e. Beldurra
 - f. Besterik (deskribatu):
11. Nire seme-alabak irakaslearekin eta gainontzeko ikasleekin harreman ona dauka.
12. Nire seme-alabak bizi duen egoera oso latza da eta hori opari/sariekin konpentsatzen ahalegintzen naiz.
13. COVID-19 larritzen nauen gertakizuna izan denez, haurra eskolara eramateak kezkatzen ninduen.
14. Nire seme-alaba eskolan sartu aurretik ez zegoen ohituta haur askorekin egotera.
15. Aurreko belaunaldiekin alderatuz (adibidez, nagusiagoak diren anai-arrebak) COVID-19 egoerak nire seme-alabaren harreman-gaitasunetan eragina izan duela deritzot, ez baitzegoen hainbeste umeekin egotera ohituta.

II. Eranskina: Irakasleei zuzendutako elkarrizketaren galderak**DATU OROKORRAK:**


1. Adina:
2. Sexua:
3. Ikasketak:
 - a. Haur Hezkuntza
 - b. Lehen Hezkuntza
 - c. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
 - d. Haur Hezkuntzako modulua
 - e. Beste bat (zehaztu):
4. Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:
5. Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota (publikoa/ itunpekoa/ pribatua):

ELKARRIZKETA


1. Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?
2. Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?
3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?
4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?
5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarriztat jotzen dituzu?
6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).
7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

III. Eranskina: Inkestaren grafikoak


Datu orokorrak




1. Grafikoa: Gurasoen adina




2. Grafikoa: Gurasoen generoa




3. Grafikoa: Seme-alaba kopurua



4. Grafikoa: Seme-alaben adina




5. Grafikoa: Eskola eredua




6. Grafikoa: Seme-alaba haurtzaindegian egon


Baieztapenak




7. Grafikoa: 1. Baieztapena: “Eskola aurretik ezagutzen nuen.”




8. Grafikoa: 2. Baieztapena: “Nire seme-alabaren irakaslearengan konfiantza daukat.”




9. Grafikoa: 3. Baieztapena: “Nire ustez egokitzapen aldia garrantzitsua da haurrak eskolan ondo moldatzeko.”




10. Grafikoa: 4. Baieztapena: “Egokitzapen aldiari nahi nuen beste inplikazioa izateko aukera izan dut.”




11. Grafikoa: 5. Baieztapena: “Pozik nago eskolak egokitzapena gauzatzeko jarraitu duen prozesuarekin eta jasotako informazioarekin.”




12. Grafikoa: 6. Baieztapena: “Irakasleak egokitzapen aldiari duen behar beste garrantzia ematen dio eta aldi horretan zehar egindako jarduerak egokitzapenean laguntzen dutela deritzot.”




13. Grafikoa: 7. Baieztapena: "Nire seme-alaba eskolan uzterakoan honako sentipenak izan ditut:"




14. Grafikoa: 8. Baieztapena: "Saiatzen banaiz ere, eskolarekiko daukadan beldurra/ezinegona nire seme-alabaren aurrean nahi gabe erakusten dut."




15. Grafikoa: 9. Baieztapena: "Nire seme-alabari eskolarekiko segurtasuna helarazten diot."




16. Grafikoa: 10. Baieztapena: “Nire seme-alaba eskolan hasterakoan honako sentipenak izan ditu.”




17. Grafikoa: 11. Baieztapena: “Nire seme-alabak irakaslearekin eta gainontzeko ikasleekin harreman ona dauka.”




18. Grafikoa: 12. Baieztapena: “Nire seme-alabak bizi duen egoera oso latza da eta hori opari/sariekin konpentsatzen ahalegintzen naiz.”



19. Grafikoa: 13. Baieztapena: “COVID-19 larritzen nauen gertakizuna izan denez, haurra eskolara eramateak kezkatzen ninduen.”



20. Grafikoa: 14. Baieztapena: “Nire seme-alaba eskolan sartu aurretik ez zegoen ohituta haur askorekin egotera.”



21. Grafikoa: 15. Baieztapena: “Aurreko belaunaldiekin alderatuz (adibidez, nagusiagoak diren anai-arrebak) COVID-19 egoerak nire seme-alabaren harreman-gaitasunetan eragina izan duela deritzot, ez baitzegoen hainbeste umeekin egotera ohituta.”

IV. Eranskina: Taula eskola ezezaguna eta gutxiegi inplikazioaren eraginak

| | Orokorra | | | Eskola ezezaguna | | | Nahi beste inplikazioa izateko aukerarik ez | | |
|--|------------------|--------------------|---------------|------------------|--------------------|---------------|---|--------------------|---------------|
| | (Guztiz) Desados | Ez ados ez desados | (Guztiz) Ados | (Guztiz) Desados | Ez ados ez desados | (Guztiz) Ados | (Guztiz) Desados | Ez ados ez desados | (Guztiz) Ados |
| Eskola aurretik ezagutzen nuen | 24,30% | 4,30% | 71,40% | - | - | - | 38,90% | 0% | 61,10% |
| Nire seme-alabaren irakaslearengan konfiantza daukat | 4,30% | 2,90% | 92,90% | 5,90% | 5,90% | 88,30% | 11,20% | 0% | 88,90% |
| Nire ustez egokitzapen aldia garrantzitsua da haurrak eskolan ondo moldatzeko. | 10% | 15,70% | 74,30% | 17,70% | 17,60% | 64,70% | 22,30% | 22,20% | 55,50% |
| Egokitzapen aldian nahi nuen beste inplikazioa izateko aukera izan dut. | 25,70% | 22,90% | 51,50% | 41,10% | 23,50% | 35,30% | - | - | - |
| Pozik nago eskolak egokitzapena gauzatzeko jarraitu duen prozesuarekin eta jasotako informazioarekin. | 15,70% | 15,70% | 68,50% | 23,50% | 11,80% | 64,70% | 55,60% | 5,60% | 38,90% |
| Irakasleak egokitzapen aldiari duen behar beste garrantzia ematen dio eta aldi horretan zehar egindako jarduerak egokitzapenean laguntzen dutela deritzot. | 2,90% | 14,30% | 82,90% | 5,90% | 17,60% | 76,50% | 11,10% | 27,80% | 61,10% |
| Saiatzen banaiz ere, eskolarekiko daukadan beldurra/ ezinegona nire seme-alabaren aurrean nahi gabe erakusten dut. | 90% | 7,10% | 2,80% | 94,10% | 5,90% | 0% | 94,40% | 5,60% | 0% |
| Nire seme-alabari eskolarekiko segurtasuna helarazten diot. | 8,60% | 0% | 91,40% | 0% | 5,90% | 94,10% | 11,10% | 0% | 88,90% |
| Nire seme-alabak irakaslearekin eta gainontzeko ikasleekin harreman ona dauka. | 1,40% | 1,40% | 97,20% | 0% | 5,90% | 94,10% | 5,60% | 0% | 94,40% |

V. Eranskina: Elkarrizketen transkripzioak**a. Lehenengo Elkarrizketa****DATU OROKORRAK:**

1. **Adina:** 52
2. **Generoa:** Emakumea
3. **Ikasketak:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
4. **Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 19
5. **Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Itunpekoa

ELKARRIZKETA

1. **Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Nire ustez egokitzapen aldia garrantzitsua da baina ez asko, azken finean negar egiten duen umeak lehenengo astean ez ezik hilabete osoan zehar negar egingo baitu. Hala ere, haurrak eskola/ irakasleak ezagutzeko eta lasaitasuna/ konfiantza bereganatu dezan garrantzitsua eta erabilgarria da.

2. **Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Lehen egun horietan haurrek ez dute askorik egiten, umeak taldeka datoz eta haien jarduera gehien bat jolastea eta margozteia izango da. Aste horietan zehar ez dute ia fitxarik egingo, normalean egiten duten fitxa bakarra sagar bat margozteia da haurren maila ikusi ahal izateko. Egiatan, aste hauek umeak eroso eta babestuta sentitu daitezen baliatzen dira, baita elkar ezagutzeko eta azken batean egokitzeko xedea izango du denbora horrek. Horrekin batera aipagarria da denboraldi horretan zehar etengabe behatzen ditugula haurren jarrerak, harremanak eta gaitasunak; ostean egin behar diren taldekatzeak gauzatzeko. Bestalde, denboraldi horretan bereziki kontuan izaten dut umeak eroso sentitu daitezen.

Egokitzapen aldiari bi aste eskaintzen dizkiogu, baina, nire aburuz, bi aste gehiegi dira negar egiten duenak aste batean zehar eta hilabete batean zehar egingo duelako. Hortaz, aste batekin nahikoa litzatekela deritzot.

3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?

Normalean hurrek izan ohi duten zailtasun nagusia gelan lasai egotea da. Hala ere, adinaren arabera ezberdin egokitzen edo adierazten dira, izan ere, ez da berdina 3 urteko haur bat edo 5 urteko ume bat; 3 urteko gelan negar egin ez dezaten ahalegin gehiago egiten dira eta nagusiagoak direnean ez dute hainbeste negar egiten. Haatik, estrategiei dagokionez, intuitiboki jarduten dut haur bakoitzarekin, hots, haren jarrera eta izaera nolakoak diren eta bera nola dagoen ikusiz.

4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?

Talde bakoitza modu batekoa da eta horiek ezagutu behar dira, batzuk mugituagoak izango dira, beste batzuk lasaiagoak eta errazago lan egingo duzu baina niretzat prozesu horretan garrantzitsuena taldea ezagutzea eta horrekin lan egitea litzateke. Bereziki, umeak ezagutzea eta etiketak jarri gabe hezitzea garrantzitsua iruditzen zait, hau da, ume bat jotzen badu “jotzen duena” izan ez dadin lan egin beharko dugu jarrera horiek gelditzen ditugun heinean. Halere, esperientziari eta hainbat estrategia frogatzeari esker, niretzat egokienak eta baliagarrienak diren baliabideak nireganatzen joan naiz.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarriztat jotzen dituzu?

Nire ustez gurasoen parte hartzea ezinbestekoa da, baina inoiz ez gelan sartuz. Hau da, arazo bat egotekotan haiekin hitz egiteko konfiantza helarazi behar zaie (bai haiek zuri kontatzeko, bai zuk haiei kontatzeko) asuntua ahalik eta azkarren konpondu ahal izateko. Adibidez, haurrak etxean zerbait kontatzen badu (arazo bat edo) hori niri kontatzeko konfiantza helarazi nahi diet, niretzat oso

garrantzitsua baita gurasoekin komunikatzea ia egunerokotasuneko harremana izanik. Aitzitik, gelan sartzea ez dut gomendagarria ikusten.

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Nabaritzen da txarrago hitz egiten dutela eta izan leike musukoaren erabileraren ondorioa. Aitzitik, bestelako gauzetan ez da nabaritzen aldaketarik berdin jolasten baitute eta haien artean berdin harremantzen baitira. Bestalde, ukaezina da gure egunerokotasunean eragina izan duela lehen lantzen ez ziren kontzeptuak lantzen ditugulako orain, baita zenbait errutina berri ezarri egin dira gehien bat higieనేarekin harremana daukatenak (esaterako, esku-garbigeta gehiago) edota teknologia berrien erabilera gehiago (besteak beste, bloga edo beste erreminta teknologiko ezagutu eta horien erabilgarritasuna frogatzeko aukera izan baitugu). Halere, nire ustez, Haur Hezkuntzan ez dira hainbeste aldaketa nabaritu, agian LHn nabaritu diren horiekin alderatuz; azken finean distantzia soziala bezalako neurriak mantentzen ahalegintzen bagara ere hurbiltzen dira eta beste gelako hurrekin ere nahastu egiten dira. Haatik, harira bueltatuz, egoera honek ekarri digun aldaketarik nabariena errutina batzuen planifikazioa eta inplementazioa izan da eta horiek luzaroan iraungo dutela eta, are gehiago, horiek mantentzea ona dela deritzot.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Ez daukat ezer gehiago gehitzeko.

b. Bigarren Elkarrizketa**DATU OROKORRAK:**

1. **Adina:** 37
2. **Sexua:** Emakumea
3. **Ikasketak:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
4. **Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 15
5. **Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Itunpekoa

ELKARRIZKETA

1. **Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Egokitzapen aldia ume berriekin lehen harremana da. Hau oso garrantzitsua da, momentu horretan umeak ezagutzen hasten naizelako eta nolakoak diren klasean eta nola jarduten duten beste umeekin ikus dezakedalako.

2. **Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Beste klaseko andereñoarekin antolatzen dut, lehenengo 3 egunetan ume guztiak elkarrekin daude eta bi irakasleok ere batera gaude. Azken bietan, aldiz, bakoitza bere klasean eta bere umeekin dago. Zeozer berezi ikusten badugu, kontua hartzen dugu taldeak egiteko.

3. **Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?**

Saiatzen naiz ume guztiekin denbora bera egoten, baina zailtasunak dituen umeari denbora gehiago eskaintzen diot, bera erlaxatzeko eta bion artean konfiantza egoteko.

4. **Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?**

Prozesu honetan ondo moldatzen naiz, eta bereziki horretarako zein elkar ezagutzeko (hau da, haurrak ni ezagutzeko eta nik haurrak ezagutzeko) haiekin jolasten dut eta ipuinak kontatzen dizkiet.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarritzat jotzen dituzu?

Nire ustez, hobe da umeak klasean bakarrik egotea. Gurasoak egotekotan haiekin egongo direlako eta gurasoek ez diete utziko nolakoak diren erakusten. Izan ere, umeak umeekin eta bere andereñoarekin egon behar direlakoan nago.

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Ume gehiegi etorri dira klasera nahiko txarto hitz egiten eta badaude ere hitzik esaten ez dutenak. Horrez gain, zailtasunak dituzte umeekin harremanak izateko. Nabaritzen da oso gutxi joaten direla parkera beste hurrekin.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Datorren urtean lehenengo egunetan gurasoekin elkarrizketak izango ditugu. Orain arte eskala bat galderekin baino ez dute bete. Beraz, hurrengo urtean, eskala hori betetzeaz gain, haiekin hitz egingo dugu; haien semeak hobeto ezagutzeko eta hurbiltasuna erakusteko xedearekin.

c. Hirugarren Elkarrizketa**DATU OROKORRAK:**

1. **Adina:** 45
2. **Generoa:** Emakumea
3. **Ikasketak:** Haur Hezkuntza eta Pedagogia
4. **Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 15 urte
5. **Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Haur-eskola publikoan

ELKARRIZKETA

1. **Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Egokitzapena da lehenengo kontaktua haur-eskolarekin. Nire aburuz, egokitzapena oso inportantea da, izan ere, ondo egiten bada kurtsoa ona izango da denontzat (batez ere umeentzat).

2. **Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Guk uztailean antolatzen dugu. Familia bakoitzari emailez egutegi bat bidaltzen diogu. Printzipioz 10 egun dira (bi aste). Proposatzen den ordutegia hurrengoa da, (halere, super malgua izango da eta ume bakoitzaren arabera aldatetako egon ahal dira):

1. eguna → 30 minutu (norbaitekin gelan, aita, ama, aitite, amama...)
2. eguna → 30 minutu (norbaitekin gelan, aita, ama, aitite, amama...)
3. eguna → 60 minutu
4. eguna → 60 minutu
5. eguna → 90 minutu
6. eguna → 90 minutu
7. eguna → 2 ordu
8. eguna → 2 ordu eta erdi (haur-eskolan bazkaldu)
9. eguna → 3 ordu
10. eguna → 4 ordu (haur-eskolan lo egin)

Gurasoak gelan sartzen dira umeek behar duten denbora edo haiek ahal duten denbora, arazo barik, hori bai, pasiboak izan behar dira. Aulki batean esertzen dira eta liburu edo aldizkari bat irakurtzen dute. Umeak haiengana hurbiltzen badira kasu egingo diete, baina “lo justito”, haiekin jolastu barik (hau oso zaila da).

Batzuetan denbora horrekin ez da nahikoa haur guztien egokitzapena gauzatzeko eta horrelakoetan egokitzapena luzatu ahal da. Hots, beharrezkoa bada eta gurasoek nahi badute egokitzapena luzatuko dugu.

3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?

Jarrera desberdinak:

- negarra denbora osoan (gelditu gabe)
- ez dute jolasten
- ez dute jaten (ezer ez 8 orduan)
- apatia
- ...

Ume bakoitzari behar duena ematen saiatzen gara, normalean egokitzapena luzatzean jarrera haiek desagertzen dira. Puntu honetan gure behaketa oso inportantea izango da nahi/behar dutena emateko.

4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?

Iraila/ egokitzapena oso hilabete gogorra da, izatez, gu ere prozesuan sartuta gaude eta ez da erraza, umeak txarto daude, ez dituzu ezagutzen, ez umeak ez familiak... Gure papera oso inportantea da eta “a tope” egon behar gara aurrera joateko.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarritzat jotzen dituzu?

Familiak ere oso inportanteak dira, gelan sartzea ezinbestekoa dela uste dut (baina pasiboak izanik).

Objektu trantsizionala baldin badago ongi etorria izango da, duda barik. Gure laguntzaileak dira egokitzapenean !!!

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Lehenengo egokitzapena COVID-a eta gero desastre hutsa izan zen, maskarak, burbuilak, gurasoak denbora gutxi gelan... gu super urduri, dena berria, desberdina. Aurten, berriz, beti bezala egin dugu eta primeran atera da.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Egokitzapen aldia hobetzeko familien inplikazioa eta denbora behar da, batzuetan lana dela eta ezin dute luzatu edo gelan sartu eta zailagoa da.

Bukatzeko esango nuke bakoitzak egokitzapen bat behar izango lukeela “a la carta, super pertsonalizatua” !

d. Laugarren Elkarrizketa**DATU OROKORRAK:**

- 1. Adina:** 27
- 2. Generoa:** Emakumea
- 3. Ikasketak:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza
- 4. Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 6
- 5. Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Kontzertatua

ELKARRIZKETA

- 1. Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Egokitzapen aldia da hurrek etxetik eskolara egiten duten bidea. Uste dut oso garrantzitsua dela haientzako aldaketa oso handia delako, azkenean haien etxean beti egoten dira konfiantza duten pertsonekin eta gero etortzen dira hona "oihanera". Hau oso ezberdina da, izan ere, ume asko daude, oso ezberdinak direnak eta bakoitzak baditu bere arazo, izaera edota motxila propioak. Orduan, uste dut, egiten dugun zatitxo hori edo denbora tarte hori haientzat oso lagungarria dela eskolara egokitzeko.

- 2. Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Egia esan nik ez dut antolatzen, hemen eskolan beti berdin egiten delako eta hori jarraitzen dugu; egia da hobekuntzak proposatu ahal direla, baina, berez berdin egiten da beti. Jakin badakit, duela urte asko ez zela egiten egokitzapenik, hau da, etortzen zirela eta lehen egunetik egun oso egiten zuten, "terapia de choque". Baina orain bi aste egiten ditugu, aste horietan zehar egunero denbora handitzen da, baita umeen kopurua ere, hasieran talde txikiagoak dira (3-4 talde) eta umeak nahastuta daude, hau da, gelak egin gabe. Hemen hurrengo egiten dugulako: umeak nahastu bi andereñoek ikusteko nola aritzen diren ume horiek gero ahalik eta talde orekatuenak egiteko.

Denborari dagokionez, esan dudan moduan, gutxi gorabehera bi aste ematen ditugu egokitzapena egiten eta hau ez da nahikoa haur guztiak egokitzeko, batzuentzako bi egunekin nahikoa delako eta beste batzuk hilabete oso bat behar dutelako. Azkenean oso ezberdinak dira umeak eta bakoitzaren egoera hain ezberdina izanik batzuek denbora pilo behar dute eta agian ez dira egokitzen abendura arte. Horregatik ikastetxe honetan egiten duguna da lehenengo hiru hilekoan bakarrik ebaluatzen dugu egokitzapenaren inguruko item-ak.

3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?

Ume bakoitzak berea dauka, hots, oso aldakorra eta pertsonala da. Gainera ume batzuk egokitzapenean zehar ondo daude, baina egun “normalak” egiten hasten garenean ez daude hain ondo. Baina orokorrean egoera horiei aurre egiteko erabiltzen ditudan estrategiak haiengandik hurbil egotea, maitasuna eskaintzea, besarkadak ematea... dira; hurbil zaudela erakustea finean.

4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?

Hasieran umeei alaitasuna transmititzen eta haiei laguntza emateko prest zaudela helarazten saiatzen zara, haiek eroso egon daitezen. Azkenean gure helburua egokitzapenean da haiek eskolan eroso sentitzea eta andereñoekin pozik egotea. Guretzat ere zaila da batzuekin hobeto konpontzen zarelako beste batzuekin baino; baina orokorrean egokitzapenean ondo portatzen dira guztiak, gero etortzen da benetako lana eta horri aurre egiteko aurreko galderan aipatutako estrategiak baliatzen ditut.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarritzat jotzen dituzu?

Galdera honi dagokionez, urteekin nire pentsaera aldatu dut. Hasieran pentsatzen nuen positiboa zela gurasoak klasean egotea, umeek egokitzapen hori hobeto egiteko; baina gaur egun uste dut ezetz. Klaseetan ume kopuru handia dago eta guraso guztiak egotea ezinezkoa da. Gainera nik haur-eskola batean egin dut lan

eta ikusi dudanagatik gero zailagoa izaten da prozesua. Hots, nire esperientziatik hobe da moztea, umeak hobeto jasotzen baitu “hemen (eskolan) aita eta ama kanpoan geratzen dira eta ni barrura noa”. Nik ikusi dudanagatik horrek ondo funtzionatzen du, gainera gero kurtsoan zehar gurasoek ez daukate lekurik egunerokotasunean; beste gauza bat izango litzateke ikas komunitate batean non gurasoek parte hartzen duten, baina eskola normal batean ez.

Bestalde, objektu trantsizionalak lagungarriak izan daitezkeela uste dut. Atxikimendu objektu horiek haienez lagungarriak direlako, adibidez, siestan gaur egun baditugu batzuk. Esaterako, ume batek txakur bat ekarri zuen eta beste batek *Minie* bat eta haiekin lo egiten zuten (aipatu beharra dago eskolan honetan hiru urteko haurrek jantoki ostean siesta botatzen dutela). Horiek lagungarriak dira eta ez dute minik ematen, horregatik bai baliagarriak izan daitezkeela deritzot.

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Dudarik gabe, ume hauek oso ezberdinak dira, ume guztiak beti desberdinak dira baina nire lankideak (irakaskuntzan urte asko daramatzanak) esan dit hogei urteetan ez dituela hauek bezalako haurrik izan, ez dituela horrelakoak ikusi. Bereziki ikusi duguna da oso berekoiak direla, ez dakitela besteekin partekatzen ezta jolasten, oso gutxi joan dira parkera eta oso gutxi egon dira beste ume batzuekin. Gainera, neba-arrebarik ez badauzkate are gehiago nabaritzen da. Orduan haienezako hemen egotea eta ondo egotea zailagoa izan da eta espero dugu urteekin konpontzea.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Agian ondo egongo litzateke lehen egun horietan andereñoa bakarrik egon ordez, laguntzaile bat gela bakoitzean egotea. Bereziki goizetan non pila bat negarrez sartzen diren. Hortaz, lehen egun horietan laguntza pixka bat izatea ondo egongo litzateke bai guretzako eta bereziki haurrentzako, gutxienez ohitura hartu arte.

e. Bosgarren Elkarrizketa**DATU OROKORRAK:**

- 1. Adina:** 46
- 2. Generoa:** Emakumea
- 3. Ikasketak:** Haur Hezkuntza
- 4. Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 24
- 5. Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Kontzertatua

ELKARRIZKETA

- 1. Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Egokitze-aldia da haurrak leku berria, andereñoak, lagun berriak, errutinak... modu mailakatuan ezagutzeko aukera ematen duen denbora, haiei arreta handia eman ahal izateko. Nire ustez egokitzapena ezinbestekoa da, batez ere talde txikitik etortzean klasean lasaiago daudelako eta horrela klasean dauden gauzetaz hobeto gozaten dute, beste umeekiko harremanak positiboagoak dira, eta abar. Izan ere, lehenengo esperientzia hauek ezinbestekoak dira haurrak behar bezala egokitzeko.

- 2. Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Gure eskolan egokitzapena ume guztiekin batera egiten dugu. Alde batetik, bi taldeak osatu baino lehen ume guztiak ezagutzen ditugu eta horrela haien ezaugarriak, harremanak, ... ikusten ditugu eta kontuan hartzen dugu taldeak ahalik eta heterogeneoenak izan daitezten. Normalean lehenengo hiru egunetan hiru taldeetan etortzen dira, hurrengo hiru egunetan bi taldeetan, gero behin betiko taldeak osatzen ditugu eta goiz osoa etortzen dira beste hiru egunetan. Hortik aurrera ordutegi normalean etortzen dira. Ume batzuekin denbora hau ez da nahikoa. Ume haiei, familiak ados badaude, denbora gehiago ematen diegu. Oso garrantzitsua da kontuan hartzea haur batzuek besteek baino denbora gehiago behar dutela. Horregatik, nahiz eta ordutegiak eta taldeak lehenengo asteetan baino ez egokitu, eskolan lehenengo ebaluazio guztian zehar egiten

dugu haurrak ikasgelara egokitu daitezen, ohitura berriak ezagutu ditzaten, autonomia har dezaten...

3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?

Normalean, larritu egiten dira, negar egiten dute, eskaintzen zaizkien jarduera eta joko guztiak baztertzen dituzte, ... Une horietan beren denbora eta espazioa ematea, kontsolatzea... eta, batez ere, lasaitasunari eustea oso inportantea da.

4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?

Ekainean bilera bat izaten dugu beti familiarekin. Une horretan, haurrei buruzko informazio garrantzitsua jasotzen duen galdera-sorta bat bete eta argazkia ematen digute. Horrela, umeak pixka bat ezagutzen ditugu. Gainera, argazkietan ikusi ditugunez, iristen direnean eta izenez deitzen diedanean, aitortuak sentitzen dira eta horrek lagundu egiten du. Andereño bezala, beti dago nolakoak diren edo nola erreakzionatzen duten ez jakitearen ziurgabetasuna. Garrantzitsuena lasai egotea da, eta, batez ere, haiei konfiantza ematea.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarritzat jotzen dituzu?

Egokitzapenean familien parte hartzea funtsezkoa da. Konfiantza, lasaitasuna, segurtasuna... eman behar diete haurrei. Familiak ulertu behar du eskolara joatea oso urrats garrantzitsua dela haurrentzat, eta bakoitzak bere denbora behar duela. Asko beren familiarekin (etxetik) haur gehiagorekin, heldu ezezagunekin, espazio ezezagunetan eta abarrekin bizitzera pasatzen dira. Denbora horretan, familiei ematen zaizkien arauak, sarrera-irteeren ordutegiak... errespetatzea da garrantzitsuena.

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Bai. COVID-19 dela eta aldaketa asko nabaritu ditugu. Alde batetik, haur asko ez dira alde zuzenetik eskolatuta egon eta horrek egoera bereizten du. Familiarekin etxean egotetik ikastetxera pasatu dira. Parkeetan ez direla egon ere nabaritzen da: motrizitatean, harremanak izateko moduan, beldurretan... Bestalde, nik uste dut familiak, nolabait konpentsatzeko, gehiegi eman dietela. Etxean hainbeste denbora egon direnez irten gabe, askoz gauza gehiago eman dizkiete lasai eta pozik egoteko. Orain, eskolara joatean, zaila egiten zaie partekatzea eta "ez" bat jasotzea.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Egokia litzateke egun batzuk gehiago luzatzea, haurren sarrera are gehiago mailakatzeko eta oraindik talde txikiagoak egiteko, baina oso zaila da familia bizitzarekin bateratzeko.

f. Seigarren Elkarrizketa

DATU OROKORRAK:

1. **Adina:** 57 urte
2. **Generoa:** Emakumezkoa
3. **Ikasketak:** Euskal filologia
4. **Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 35
5. **Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Publikoa

ELKARRIZKETA

1. **Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Niretzako egokitzapen aldia garrantzia duen aldia da. Umea, apurka doa bere egoera berrira moldatzen (gehien bat amarengandik banatzen, lagun berriak ezagutzen, arreta partekatzen...). Baina ez dago bakarrik umeei zuzenduta. Egokitzapena beste askok egin behar baitute; esaterako, familiek bere umearen zaintza ezezagun baten eskuetan utzi behar dute eta honek bere denbora behar du. Tutoreak ere bere denbora behar du ikasle berriak ezagutzeko; bakoitzaren izaera, gustuak, harremantzeko ahalmenak, zailtasunak, ...

Nire ustez, egokitzapen ona egin duen umea pozik joango da egunero eskolara. Pozik joatea errazten du ondorengo lana.

Badaude umeak erresignatuta doazenak. Hauek, denboraren poderioz moldatzen joango dira eta agian, egunen batean pozik, baina gehiago kostatuko zaie. Badaude ere guraso batzuk oso txarto eramaten dutenak. Denek behar dugu gure denbora. Batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago. Eta gutxi batzuk inoiz.

2. **Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Gure eskolan 2 urteko geletan hilabete bat luzatzen dugu egokitzapen aldia. Hasieran taldea 3 talde txikitara banatzen dugu. Gutxi gora behera 4 egunetan ordu erdi egoten dira gelan gurasoekin. Hauek hasieran saio osoa egoten dira umeekin. Nola moldatzen direnaren arabera badoaz gelatik ateratzen. Sarreran

geratzen dira eta umeei behar izan ezker sartzeko aukera dute. Hurrengo egunetan, denbora gehitzen doa baita ume kopurua. Egokitzapen honetan, jantokia ere kontutan hartzen dugu.

Batzuetan ez dugu lortzen umearen negarrak baretzea familia-kidea ez dagoenean. Kasu hauetan, gurasoekin hitz egiten dugu eta beste modu bat bilatzen dugu.

Egokitzapenaren denbora umearen arabera datza, baina normalean nahikoa da.

3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?

Normalean, lehenengo egunetan oso pozik datoz. Arazoak datoz bigarren egunetik aurrera, batez ere gurasoak gelatik ateratzen hazten direnean. Negarrez hasten dira. Batzuekin elkarreragiten bada lasaitzen dira. Gutxiago batzuk oso txarto pasatzen dute. Negarrak, kasketaldiak, ez dute beraiekin hitz egiterik nahi. Normalean gurasoak sartzean lasaitzen dira. Gurasoei esaten diegu ez ateratzeko gelatik umeari abisatu barik. Aitzaki bat ematen dietenean lasaiago geratzen dira (komunera noa, ogia erostera noa...).

Batzuetan, negar baten daudenean, ez du ezertarako balio umearekin elkarreragiten saiatzea. Ume bakoitza mundu bat da, bere beharrak eta berezitasunak ditu eta errespetatzen ahalegintzen gara.

4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?

Gurasoak umeei daudenean asko fijatzen naiz nola komunikatzen diren, zelan hitz egiten duten, zer gustatzen zaion umeari, gurasoekin hitz egiten dut asko... Urduritasuna hor dago baina denbora behar da. Ezin dira gauzak behartu. Lortu behar da umea zurekin gustura egotea, ziur, eta horretarako denbora behar da. Maitekor izan baina firme. Hasieratik ulertu behar dute zer egin daitekeen eta zer ez, nork agintzen duen.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarritzat jotzen dituzu?

Nire esperientziak dio egokitzapena gurasoek egiteko prozedura dela. Beraiek dira hobeto ezagutzen dituztenak umeak. Amamek egin behar dutenean, oso txarto hartzen dute. Batzuetan gurasoen kontra jartzen dira (ezin dituzte umeak txarto pasatzen ikusi eta gurasoei botatzen diete errua).

Normalean etxetik edozer ekartzea eskatzen diegu, lotura bezala. Oso lagungarria da. Panpina, zapitxo... baita oso baliagarria da umeentzat familiaren argazkiekin albuma, ikusten dituztelako aita/ama/aitite/amamaren argazkiak eta lasaitzen dira.

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Zailagoa izan da egokitzapena egitea. Oso denbora laburra izan dute gurasoek gelan egoteko eta apur bat gehiago kostatu zaie umeei.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Ez

g. Zazpigarren Elkarrizketa

DATU OROKORRAK:

1. **Adina:** 27 urte
2. **Generoa:** Emakumea
3. **Ikasketak:** Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan
4. **Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan:** 4
5. **Lan egiten ari zaren ikasketa zentro mota:** Kontzertatua

ELKARRIZKETA

1. **Zure hitzetan zer da egokitzapen aldia? Uste duzu egokitzapen aldia garrantzitsua dela? Zergatik? Zertarako?**

Nire ustez egokitzapen aldia umeek eskolarekin lehen harreman bat izateko aldia edota epea da. Hau garrantzitsua da ume horietako batzuk, agian, ez direlako inoiz haien gurasoengandik banatu eta eskolan sartzea haientzat aldaketa handi bat izan daiteke. Hori dela eta, egokitzapen egun horiek egoera berri honetara hobeto moldatzen laguntzen diete.

2. **Nola antolatzen duzu zuk egokitzapen aldia? Zerbait izaten duzu kontuan bereziki? Zenbat denbora eskaintzen diozu? Denbora horrekin nahikoa da haur guztien egokitzapena gauzatzeko?**

Lehen egokitzapen aldiari bi aste eskaintzen genizkion, baina orain aldatu egin dugu eta aste bakar batean egiten dugu. Nire ustez, aste bat denbora gutxi da eta bi asteko egokitzapena egokiagoa zen. Izan ere, lehenengo egunean ordu eta erdi bat etortzen dira, bigarrean bi ordu, ... eta, hurrengo astean guztia “normal izatea” (jantokiarekin, patioarekin...) haien egokitzapena ondo gauzatzeko denbora gutxi delakoan nago. Horregatik, nire aburuz, aste bat gutxi da eta bi asteko egokitzapena egitea hobe litzateke, gainera haurren ezaugarri bereziak eta ezberdintasunak behatzeko denbora gehiago eskaintzen dizu egokitzapen-aldi luzeago bat prestatzeak.

Nik prozesu horretan kontuan hartzen dudana umeak etortzen diren momentu horretan lasai egotea, ondo pasatzea eta gelako giroarekin eroso sentitzea da.

3. Zelako jarrerak nabarmentzen dira egokitzeko zailtasunak dituzten haurretan? Haur horiekin ze estrategiak jarraitzen dituzu?

Askotan sartzen direnetik ikusten da ze hurrek dituzten egokitzeko zailtasun gehiago edota nortzuei kostatzen zaien gehiago. Batzuetan da, lehen ezan dudan bezala, haien gurasoengandik inoiz ez direlako aldendu eta hau banatze hori bizi duten lehenengo aldia denez, saila da haientzat. Orduan, nire aldetik, maitasun gehiago eskaintzen edo estutasun gehiago eskaintzen ahalegintzen naiz, haiek erosoago eta hurbilago sentitzeko nagusiaren figura batetik eta hainbesteko ezberdintasuna ez nabaritzeko, haien etxetik ikastetxera.

4. Haurrak berriak direnean (aurretik ezagutzen ez dituzunean) zu ere egokitu behar zara haiekin, hortaz, irakasle bezala, nola sentitzen eta moldatzen zara prozesu horretan?

Etortzen direnean ez dituzunez ezagutzen, hasieran oso inpaktu handia da. Haiek ez zaituztelako ezagutzen eta zuk ere ez dituzulako ezagutzen, haien izenak ikasi behar dituzu, eta abar. Baina, egokitzen joaten zara haiekin hitz eginez, maitasun asko eskainiz, haien izenak galdetuz edota haien etxeetan zer egiten duten zein zertara jolastea gogoko duten galdeginez. Horrela, pixkanaka moldatzen joaten zara eta batez ere haiek eroso sentitzen badira zure lana errazago egingo da.

5. Zure aburuz nolakoa da eta nolakoa izan beharko litzateke gurasoen parte hartzea prozesu honetan? Adibidez, gurasoak gelan sartzea, objektu trantzizionalak, etab. baliogarriztat jotzen dituzu?

Nire aburuz, gurasoak ez dira gelan sartu behar, hasieratik bereizketa hori egin beharko genuke. Hau da, gurasoekin etxean daude edo kanpoan daude eta ikastolara etortzen direnean haiek bakarrik etortzen dira eta horrela ere haien autonomia lantzen joaten gara. Izan ere, Haur Hezkuntzan sartzekoan autonomia lantzea gauzarik garrantzitsuenetarikoa da. Horregatik, hori errazteko umeak hasieratik aldendu behar direla gurasoengandik eta haiek bakarrik sartu behar direla klasean deritzot. Hots, gurasoak gelan sartzea aldentzeko nukeen zerbait da, bestela umeak ohituko dira gurasoek eskolan egotera eta errutina hasterakoan aldaketa handiagoa izango da.

Batzuetan objektu trantsizionalak ekartzea ondo dago, batez ere egokitzapen aldian edo lehenengo egunetan ezberdintasun eta aldaketa handi hori errazagoa egiteko. Horregatik, haiek etxean pelutxeren batatekin badaude ekar dezakete eskola den testuinguru berri honetara moldatzen joan arte.

6. Azken urteetan bizitako COVID-19 egoera dela kausa, aldaketarik nabaritu duzu umeen egokitzapenean? (bakoitzaren jarreran, gainontzekoekin izandako harremanetan).

Nabaritzen dira aldaketa asko, batez ere, umeak ez daude ohituta hainbeste harreman-sozial izatera, ez baitira hainbeste egon parkean edo haien inguru-hurbileko umeak ez diren beste hurrekin ez direlako erlazionatu, orduan hori bai nabaritzen da asko.

Bestalde, hizkuntza arloan izandako eragina ere agerikoa da, alegia, musukoek eragindako kaltea bistakoa da eta hitz egiterakoan eta ahoskatzerakoan asko nabarmentzen dira.

Laburbilduz, egokitzapen aldian haurrak ezagutzerakoan bi premia horiek bereziki nabarmendu egin dira: hizkuntzan eta harreman-sozialetan.

7. Egokitzapen aldia hobetze aldera zer proposatuko zenuke? Beste zeozer gehitu nahiko zenuke?

Nik luzatuko nuke berriz ere egokitzapen aldiaren denbora. Bi astez, agian hiru astez, egokitzapena eginez eta egunero denbora pixkatxo bat gehiago eskainiz, prozesua progresiboa izan dadin. Bestalde, objektu trantsizionalak ekartzen badituzte horiek pixkanaka-pixkanaka kentzen joateko denbora ere behar da. Hortaz, prozesu guzti hau pausatzea eta pixkanaka-pixkanaka egitea umeentzat dena erosoago izatea ekarriko luke eta egun osoa hasterakoan haientzat errazagoa izango litzateke.